# ARRASATE PRESS

Arrasate 1991ko Martxoak 15, 99. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Xabier Orobengoa

# Beti prest!

## Arrasateko Orkatz scout taldea

**Sor M. LUISA VELEZ DE MENDIZABAL, Misiolari arrasatearra Perutik bueltan**

ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE

AED ELKARTEA arrasate gipuzkoa

AEDk eta Arrasate Pressek
aurkezturik

# TAPIA eta LETURIA
# RIP
# MINXORIAK

eta beraiekin kantuan:

- **Gari** (Hertzainak)
- **Roberto Moso** (Zarama)
- **Andoni** (Delirium Tremens)
- **Elortxa** (Jotakie)
- **Anje Duhalde**
- **Josu Garaita** (Danba)
- **Gorka** (Julio Kageta)
- **Patxi** (SS-77)
- **Katu** (Baldin Bada)

**Arrasate Pressek 100 ale**
ASTETIK ASTERA
HUTSETIK EHUNERA

**Eta sorpresak...**

## Arrasateko Kiroldegian

**Martxoak 22, ostirala, gaueko 10etan**

Sarrerak: Aurrez 600 pta. leihatilan 800 pta. Salgai ohizko lekuetan.

IKATZ
ARGAZKI ETXEA
Zure argazkiak ORDU 1ean
Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01 ARRASATE

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

KATJOI
taberna
Erdiko kale 22,
Tfnoa: 79 32 27 ARRASATE

ARRASATE PRESS
ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**
Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**
Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**
Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**
Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**
Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**
Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**
Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Arantza Ozaeta, Txipi Ormaetxea.

**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**
J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**
ARRASATE PRESS

**Tirada: 7.000 ale**

**Lege-Gordailua: 1124/88**

**ISSN: 0214-4654**

**Frankeo kontzertatua: 37-60**

**ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Zientziaren ildo bihurrietatik zehar

Egunkarietako albiste osagarrien zutabeetako batean, zera irakurri ahal izan genuen lehengoan, hemendik lasterrera komun adimentsuak izango ditugula gure etxeetan, hots, betebehar fisiologikoak lasaiago, erosoago eta gorputzei hoberen dagozkien baldintzetan egin ahal izango direla. Albiste bitxi baina logikoa, oso, izan ere teknologia aspalditik lantzen ari bait da gure bizimodua artifizialki kontrolatuko duten sistemak. Gauden mendearen hondarretan gertutzen ari dira hurrengo gizaldian -ipar mendebal gizartean batipat- bizitzaren alderdi teknikoak arautuko dituzten sofistikazioak.

Adimen artifizialaren izena eman dioten goi-teknologia horri esker, etxe, bulego, garraio, komunikabide eta abar luze bateko funtzioak zuzenduta izango dira, gu adintsuon adimen arruntak nekez uler dezakeen baliabide-sare baten bitartez. Ulertu ala ez ulertu, gauza zera da, atarian daukagula eguneroko lan eta ohikeriak egiten lagunduko digun zerbitzua. Guzti honetaz orain dela berrogeitamar urte norbait hitz egitera ausartu izan balitz, Santa Agedarako txartelaren zenbakiak irabaziko zituzkeen. Gaur, ordea, bizimodu arrunteko errealitatetzat hartu behar dugu.

Badira, bestalde, beste teknika batzuk ere, ordenadorearen bitartez errealitatearen edozein alderdi birsortzeko balio dutenak. Zientzia fikziozko istorioa diruditen teknika horiek berehalako aplikazioa eskaintzen dute, gizona-makina bikotearen harreman estuan beste nolakotasun berria eskainiz. Errealitatearen birsorpena ez ezik, asma daitezkeen sentsazio guztiak bizitzen ahalbidetzen du teknika horrek. "Virtual reality" izendatu dute prozesu hori.

Askotan -pentsatzea ez dela erregali bat arte baizik, gogoratzen dudanean batez ere- zientziaren bidez garatzen ari garen gizarte honek inoiz amaierarik izango ote duen ala ez galdetzen diot nire buruari. Giza burmuinaren aurrerakuntzak noraino eramango gaituen eta hura zertan aplikatuko den asmatzen hain zaila denik, badirudi teknologi-egokiera berri guzti horiek gure eskema filosofiko eta moralak aldateraz ditzaketela, gaur errealitatetzat daukaguna bestelakotuz. Areago, denbora eta espazioz giza-bizitzapenak orain soma ezin ditzakeen alderdietara ailega liteke zientziak idekitako ildo horretatik. Horretarako al da zientzia?

Bizitzaren helburu nagusia matematikoa dela diotenek beldurtu egiten naute, zinez. Ez, noski, matematikak berez ekar lezakeen problematikarengatik; aldiz, giza-edukinik ezak adieraz lezake zientzi egituraren akatsik ezkorrena. Pentsatzearen arteak erraztu egin beharko lizkioke gizonari askatasunerako baliabideak.

*Josemari Velez de Mendizabal*

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa - t/797856 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak

## Udala zertarako?

Orain dela aste batzuk, Arrasate Pressen irakurri nuen Udalari egindako eskaera hau: zebrabideak margotzea. Denbora aurrera doa eta ez dut ikusi sentikortasunik hain arriskutsu izan leiken egoera hori konpontzeko.

Ni Uribe Auzategiko bizilaguna naiz eta aipatzera noa Udalaren utzikeria auzoaren behar izanekiko.

Argitaria. Egunetan egon ginen bat ere argirik gabe. Itxura denez, konpondu zuten arazoa baina bonbila askok ez dute funzionatzen (bai kalean, errekaldeko paseoan, plazatxoetan eta arkupetan). Eta ez pentsa egun bateko arazoa denik; bonbila batzuk urteetan daude argirik eman gabe. Ez dut eskatzen Udaletxeko arkupetan beste argitasun, baina haren erdia ez legoke txarto egongo.

Gainera, errekaldeko lurreko erregistro batek tapa falta du eta kableak aidean daude.

Zaborrak. Hau lotsagarria da. Bakarrik gomendatzen dut larunbat arratsalde batean ikusi dezatela "trapos" ingurua. Lehen bi ontzi zeuden eta gutxi ziren. Ba egoera hobetzeko, bat kendu egin zuten.

Eta kale garbitzailea, pasatu bai baina erdiak ez ditu garbitzen.

Lorategiak. Bakarrik daude zuhaixkak eta belarrak. Hemen inoiz ez dute lorarik landatu, ezta belarra abonatu. Alderantziz, iturria jarri zuten eta zanga han dago lur hutsean; suhiltzaileentzako iturriarekin, beste hainbeste.

Aparkalekuak. Kotxeentzat diren aparkalekuetan kamioi ugari egoten dira, eta baita espaloietan eta zebrabideetan.

Zer egin behar da Loramendi kaleko espaloiak libre edukitzeko? Bukatuko dut esanez: zergak bai, isunak bai, baina zerbitzua ere bai.

Eskerrik asko.

*Auzotar bat*

## "Arrasate Press", presarik gabe

Gaur bertan (martxoak 6) jaso berri dut aldizkariko zuzendariak bidalitako gutun bat, non Urtekaria 90-en berri ematen den. Kuriositatez kartazalean begiratu dut eta zigiluan 5-3-91 data darama. Beraz, Arlaban igotzen egun bat egin du. Primeran. Baina- eta horra idazki honen arrazoia- Arrasate Press aldizkariak askoz denbora gehiago behar du, nonbait. Normalena da astebete beranduago iristea, baina azkenekotan areago: jaso dudan azken alea (harri zaitezke!!) otsailaren 8koa da (hortaz ots. 15, 22 eta martxoaren 1ekoa falta oraindik). Edo iratxoren bat dabil inguruan, edo posta gero eta okerrago ari da, edo auzoren batek Arrasateko berriak maite ditu. Ez dakit zer pentsa!

Dena den, zorionak (aurki 100. alea, txo!) eta eutsi goiari!

*Txipi*

## Gasteiz'tik, 1991'ko Epaillaren 7'an

Joxe Arantzabal Jaunari agur t'erdi!

Onen bidez, erantzuten dautsat zure eskutiz maitagarriari.

Arrasate'n, zuen aldizkariaren bitartez, lan itzala ta eredugarria egiten dozuela argiro ikusten da. Zorionak!

Tamalez, ez dozue iñoiz zuen erriko euskalki jatorra ta aberatsa erabiltzen; ezta be, lengo idazkera errez-erreza ta garbi-garbia.

Besterik gabe, onena opa deutsue. Biotzez,

*Josu Etxea'k*

OHARRA
Gutunak sailera zuzendutako eskutitzak, izen-deiturak eta NANaren zenbakiaz bidali mesedez, nahiz eta ezizen batez argitaratu.

gili gili
Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ZENBAKI
Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak
Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99
ARETXABALETA

ETXE-AUNDI
Ostiraletan dastatu gure menu bereziak
3.500 pta. inguru
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

# Jaizubietan kanpora urteten duzu?



**Itziar Muruamendiaraz (Langilea)**

Orain gutxi. Lehen bai, baina orain umeak dauzkadanez, oso gutxi irteten dut.



**Sabin Zabala (Fresadorea)**

Kanpora ez naiz joaten, mendira irteten dut, egun batean joan eta hurrengoan etorri.



**Miguel Angel Lekue (Langilea)**

Orain arte bai, baina orain ume txikia daukadanez normalean ez dut irteten, batzuetan bai.



**Marisa Martinez (Umezaina)**

Ez, normalean ez, autorik ere ez daukagunez, bada ez dugu irteten.

LENIZ
AUTO ESKOLA





GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!
ARRASATE - ESKORIATZA

KATAIDE
JATETXEA

• Enpresa batzarrak
• Eskontzak
• Afari xarmantak
• Lehen jaunartzeak
• Lagunarte afariak

Bi jangela eder eta erreserbatua zure gustorako

Erreserbak Tel.: (943) 79 60 10
Kataide Poligonoa. Arrasate

MemesA
79 42 22

KOPIOTXOA
Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak
Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**ERITETXEAK**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ..... 79 53 00
Igualatorioa ..... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ..... 79 39 00
(emakumeak) ..... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**GURUTZE GORRIA**
Bergara ..... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ..... 76 62 91

**ANBULATORIOAK**
Arrasate (Espezialista) ..... 77 12 64
(Txanda hartzeko) ..... 77 03 46
Oñati ..... 78 08 52
Eskoriatza ..... 79 98 58
Aretxabaleta ..... 79 74 58
Aramaio ..... (945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako anbulantziak ..... 45 87 44

**UDALTZAINGOA**
Oñati ..... 78 04 11
Bergara ..... 76 14 69
Arrasate ..... 79 14 39
Aretxabaleta ..... 79 10 52
Eskoriatza ..... 79 03 22

**ERTZAINTZA**
Arrasate ..... 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**
Udal taldea ..... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ..... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**MATXURAK**
Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81
Gasa ..... 900 40 05 23
..... 79 78 44
..... 79 76 78

**GARRAIOAK**
Taxiak ..... 79 12 22
P.E.S.A. ..... 79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**
Iturbide Egoitza ..... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ..... 79 87 77
KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**MONTERRONGO LIBURUTEGIA**
Monterron ..... 77 01 05



## 15 OSTIRALA

• • •

• Zinea: Amaia. "Hablando con la muerte", 10.30etan. Alai. "Solo en casa", 7 eta 9.30etan.
• Eskoriatzako zineman "Amets Izarria" obraren antzezpena, gaueko 10etan.
• Marrazki erakusketa. Korrikako ekitaldien artean, astean zehar ikastetxeetan egindako marrazkiez.
• Goardiako farmazia: egunez: Morales, San Andres. gauez: Puy, Bergara.

## 16 LARUNBATA

• • •

• San Juan Bautista anaidiaren Batzar Nagusia Abaroan. 5.30.
• Zinea: Alai. "Solo en casa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
• Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias.

## 17 IGANDEA

• • •

• Zinea: Alai. "Solo en casa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
• Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 18 ASTELEHENA

• • •

• Zinea: Alai. "Solo en casa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
• Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## 19 ASTEARTEA

• • •

• Zinea: Alai. "Solo en casa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
• Sokatira txapelketa. Korrika dela eta eguerdian koadrilen arteko sokatira txapelketa.
• Amnistiaren aldeko Batzordeak antolaturik enkartelamendua, Portaloian arratsaldeko 7etan.
• Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 20 ASTEAZKENA

• • •

• Abaroako batzar orokorra, arratsaldeko 6etan.
• "Europa 93" erakusketaren azken eguna.
• Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

## 21 OSTEGUNA

• • •

• "Korrika", arratsaldeko 3.30etan
• San Viator Ikastolaren Batzar Nagusia, arratsaldeko 6.30etan.
• Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

## Kirol Agenda

### ZIKLOTURISMOA

• • •

• Ziloturisten irteera, 56 kilometrotako bira, Kanpazar tartean, txirrindulari taldeko areto aurrean, igandean goizeko 10etan.

### PILOTA

• • •

• Gipuzkoako kluben arteko txapelketan, Arrasate eta Lasarte taldeen arteko neurketak, Musakolan, larunbatean goizeko 10.30etan.

• Igande goizean, 10.30etatik aurrera, pala partiduak Musakolako frontoian.

### SASKIBALOIA

• • •

• Centraljet Euskal Air-Barañain, Musakolan, larunbatean arratsaldeko 6etan.

### FUTBOLA

• • •

• Arabako preferentea, San Andres eta Atletico Alaves taldeen arteko partidua, Atxabalpen, larunbatean arratsaldeko 5etan.

### FUTBITOA

• • •

• Larunbata eta igandea bitartean Zaldibarko frontoian hamabi futbito partidu.

## *Lehiaketak*

**• Literatura**

Urruzuno literatur lehaiketaako deialdia luzatu du Jaurlaritzak, ertainetako ikasleentzat. Lanen gai librea izango da, eta prosaz, poesiaz eta bertsopaperetan izango dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 10ean bukatuko da eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailera bidali behar dira, Wellintongo dukearen kaleko 2. zenbakira.

Kontuan izan sariei dagokienez, benetan interesgarriak daudela lehiaketa honetan, 10 egun inguruko bidaia eta bidaiako gastuetarako 25.000 pta. saritu bakoitzarentzat. Lan ekin liburua argitarako da.

**• Abesbatzak**

Deba Garaiko Eskolen arteko abesbatzen IV. topaketak izango dira maiatzaren 4ean. Eskolaurrea, OHOko Hasera, Erdi eta Goi zikloetako ikasleak izango dira partaide, eta eskola bakoitzak maila bakoitzeko talde bakarra aukez dezake, eta



talde bakoitzak gutxienez 20 partaide beharko ditu izan. Soinuaren aldetik, umeek zuzenean sartutakoak bakarrik onartuko dira, eta abestiak mikrofonorik gabe kantatuko dira. Talde bakoitzak bi abesti aukeratuko ditu, eta partiturak antolatzaileei bidali.

Izenak emateko martxoaren 26an amaituko da epea, eta Gazteluondoko ikastolan.

aek korrika!

### KORRIKA

#### Ostegunean hemen

Datorren ostegunean, hilak 21, Korrika Arrasatetik pasatuko dela eta, zenbait ekintza antolatu dira. Asteartean, eguerdiko 12etan herriko plazan kuadrilen arteko sokatira txapelketa burutuko da, eta ondoren Monterroneko paretan eskalada saioak haurrentzat, Besaide eta Espeleologi taldeekin. Horretaz gain, marrazki-erakusketa ere antolatu da, Udaletxeko arkupetan jarriko dena alegia.

Korrika bera, Arrasatetik asteartean arratsaldeko 4etan pasatuko da, ondorengo ibilbide hau egingo duelarik: Foruen Plaza, Arrasate Pasealekua, Garibai, Portaloia, Plaza, Iturriotz, Portaloia, Olarte, Otalora, eta Musakola.

Azkenik, esan beharra dago Korrika hilaren 24an Baionan bukatuko dela, eta AEKk autobusak jarri dituela joan nahi dutenentzat. Autobusetarako izenak eman nahi dutenak AED, Biona tabernan, ala AEKn eman dezakete. Autobusen irteera ordua goizeko 8etan, Arbolapetan.

## *Ikastaroak*

**• Baratzagintza**

Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak baratzagintza biologikoari buruzko ikastaroa antolatu du bailarako baserritarrentzat. 8 hilabeteko ikastaro honetan, 400 ordu izango dira astean bi edo hiru egunez, eta 3 edo 4 orduz, taldearen arabera. Ikastaroaren barruan subentzionatutako bidaia egingo da Holandara. Ikastaroaren hasiera apirilaren 2an izango da, eta 12 ikasleko taldea hartuko da. Izen ematea martxoaren 15a baino lehen egin behar da 76 25 47 telefonoan, eta matrikula 5.000 pta izango da. 18 eta 60 urte bitarteko baserritarra izatea eta etxean gutxienez 500 m izatea dira baldintzak.

**• Larrua**

Aretxabaletako Kultur Etxeak antolaturik, larru ikastaroa izango da apirilaren 9tik maiatzaren 14era bitartean, Adun Garai irakaslearekin. Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 3etatik 5etara emango dira eskolak, kutur etxean bertan, eta 10 lagunentzat bakarrik izango da lekua. Izena emateko goizez eta arratsaldez bertara joanda, edo 79.01.05 telefonora deituta. Larrua maite duzuenentzat, aukera maukera.

## *Erakusketak*

**• Europa 93**

Monterron jauregian izango da ikusgai Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioek antolatutako erakusketa ibiltaria, azpiegitura arloan datozen urtetarako pentsatuta dauden lanen azalpen moduan. Maketak, pane-



lak eta planuak izango dira jendaurrean, errepide, trenbide eta lan hidraulikotan egin asmo direnen berri emanez. Erakusketa hilaren 20ra bitartean izango da zabalik, eta gure bailarako errepideen maketak bilduko ditu batez ere, Durango- Maltzaga, Arrasate-Bergara autobia eta Y ezaguna.

## *Hitzaldia*

**• Hegoaren zordun gara**

Gaur, ostirala, hitzaldia izango da San Viator ikastolako guraso taldeak antolaturik. Arratsaldeko 7.30etan Monterrongo hitzaldi aretoan.



Joseba Arregi jauna: (...)

**Egia esan, hitzok ez dute azalpen gehiegiren beharrik. Baina ezin diot eutsi zenbait komentario eransteko tentazio gorriari:**

**1.- Bietako bat: Egunkariaz duzun eritzi garbi eta argiari kasu eginez gero, ala Egunkaria irakurri egiten duzu zeure esanaren kontra, ala behar hainbat ezagutzen ez duzun zerbaiten gaineko kritika arinak, azkarregiak eta oinarririk gabekoak egiten dituzu.**

**2.- Artikulu honen izenburua, "besteak baino lehenago atera nahi dut eta blast!, kalera noa" esaldiak azalduko dizu, verguenza ajena/inoren lotsa (...) bait dira denok, baita Jaurlaritzan eta instituzioetan fede itsua dutenek ere, iazko Durangoko azokan, Egunkaria kaleatzear zegoela, argitaratu zenuten sasi-zero-zenbaki hura ikusterakoan sentitu genuena hobeki adierazten duten hitzak, baita oraingo zure hitzak entzutean sentitutakoa ere.**

**3.- "Publiko izan behar du". (...) Munduko beste leku batzutan komunikabide pribatu eta libreen benetako askatasuna zein murritza den aztertzen eta egiaztatzen ari direnean, Kultur Sailburua egunkari publikoa defendatzen entzutea esanguratsua da, besterik ez esatearren.**

**4 - Kazetariaren duda-mudak Egunkariak zerbait positiboa ote zeukan galdetzerakoan ere komenta genezake, baina larrien iruditu zaidana honakoa da: "tipo batzutako prentsak ez ditut irakurtzen". Egunkariak eta HBko edota inguruko ez garen kolaboratzaile guztiok zabaltasunaren alde eta era guztietako eritziak ager zitezen egindako ahalegina, horrelako identifikazio huts batez, pikutara bialdu nahi izatea inorantzia da, edota bestela azpijokoa..."**

*(Gerardo Markuletak Egunkarian)*

**Zer dela eta zazpigarren Korrika?**



Atxintxiketan dator Korrika, bai, atxintxiketan eginaz dator Korrika Euskaraz; herriak, euskalduna izateko euskara behar duelako. Inkestek ere honelatsu diote:

Euskal Herri mailan %23a dira euskaraz dakitenak, horietatik euskara erabiltzen dutenak, gutxi gorabehera, %7,7a dira; baina ez dakitenak %77 badira, %81,2a aurrerantzean euskara Euskal Herri osora hedatzearen alde agertzen da.

Eta orain gauden unean, euskarak guztion ahaleginak behar dituela argi dago. Horregatik antolatu dugu Korrika 7a, euskara guztiona eta guztiontzat gura dugulako, bestela zer Euskal Herri litzateke bere hizkuntza ere galtzen duena?

Duela gutxi, Korrika zela eta ez zela andaluziar batek honela ziostan: *"Zuen arazoa oso ondo ulertzen dut, -eta jarraian-, bere hizkuntza galtzen duen herriak bere kultura ere galtzen duelako, eta kultur gabeko herriak herri izateari uzten diolako"*. Ondorioz: ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?

Esan behar bada, bukatzeko, Korrika 7a hil honetako 21ean, arratsaldeko 4ak aldera (badakizue apur bat lehenago edo geroxeago, urtero lez) Arrasatera helduko dela, agian ikusiko gara. Izan euskaldun!

...ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena!

*Eneko Bergara,*
*Korrika ordezkaria.*

LURRINDEGIA
ERTZ
OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

ZUBIZARRETA TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Mondragonesa Grafikagintza
Paperdenda. Mahaigaineko tresnak
Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

LORATEGI
taberna
Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

## Oñati

• Joan Den astean burututako Udal Osoko bilkuran, 1991. urterako aurrekontuak onartu ziren, 1.674 milioikoak direlarik. Diru kopuru horretan; Olate fundazioa, 202 milioirekin; San Martin Egoitza, 53 milioirekin, eta Santa Ana aretoa, 12 milioirekin, kontutan hartzen dira. Udalaren aurrekontua beraz, 1.408 milioikoa da, inbertsiotarako ia 400 milioi erabiliko direlarik.

## Aretxabaleta

• Murrukixo elkartak San Jose zubirako Alabita eta Gredosera, hau Besaiderekin batera, antolatu dituen irteeretarako ez dago tokirik. Izena eman duten guztiei, gogoratu bidaietarako irteera bihar goizeko 8etan dela.






## Elgeta

• Datorren igandean, hilak 17, "Elgeta" trikitilari zena omenduz Trikitilari eguna egingo da. Harrigarria bada ere, egun guztian zehar, herriko kaleetan 200 trikitilari bikote ari izango dira. Jai-giroko ekintzei goizeko 10.30etan emango zaie hasiera, Ozkarbi elkartean trikitilariei gosaria eskainiko zaielarik. Gosaldu ondoren, kalejira izango da eta eguerdian, ohi denez, meza. Meza bukatu eta gero beste kalejira bat egingo da, txikiteoa alaituz eta jarraian frontoian bazkaltzeko bilduz. Bazkaltzera joan nahi duenak 2.400 pezeta ordaindu beharko ditu.

• Udalak egindako azken osoko bilkuran, lau mozio jarri ziren mahai gainean. Leitzarango autobiari buruzko bi mozio aurkeztu ziren, bata PNVrena eta bestea HBrena, biak atzera bota zituelarik kandidatura independienteak. Aztertutako beste bi mozioak, bata Golkoko gudari buruzkoa eta bestea kutsadura salatzen zuena, onartu egin ziren.

## Bergara

• Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak, nekazaritza ikastaroak antolatu ditu bailarako baserritarrentzat. Ikastaroari apirilaren 2an emango zaio hasiera, eta interesatuak Bergarako Nekazal Etxean matrikula daitezke, bost mila pezetaren truke, eta hilaren 15a baino lehen. Informazioa gehiagorako 76 25 47 tfno.ra jo.

• Udalak trenbide zaharreko lur sailak erosi ditu, 22 milioi ordainduz. Guztira, 102.342 metro karratu dauzka lur sailak, eta luzeran 6 kilometro. Lur sail hauekin, Udalak jendearentzako pasealekuak egiteko asmoa dauka. Aipagarria da lur sail hauek erosteko hainbat ahalegin egin zirela lehen ere, baina ezer lortu gabe.



ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA
BAZAR TOKI ON
J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

SANIDES
Parasitoei aurre egiteko
Intsektu narraztiak akabatzeko,
arratoiak barne
URTEBETEKO GARANTIA
Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

Lore lurrindegia
Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan neurri guztietako altzariak
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

### ❑ Kooperatibistak

Lagun Arok 90eko txostenean argitaratutako datu batzuek diotenaren arabera, honako hauek dira bazkide kopururik handiena duten kooperatibak: Eroskik 2.490, Fagor Elektrogailuak 2.169, Lan Kide Aurrezkiak 1.353, Coprecik 894, Ederlanek 759 eta Elektronikak 532 bazkide. Arrasateko beste batzuen artean, Eskolak 94 bazkide ditu, Ikerlanek 74 eta 41 Alecop.

### ❑ Aurrekontuak apirilaren 12rako

Arrasateko Udala gogor ari da azken egunotan 91ko aurrekontuak zehazteko lanean. Hasiera batean aste honetan bertan amaiturik izatea espero bazen ere, Alkateak berak adierazi digunez, oraindik atzeratu egingo da, apirilaren 12ra arte seguruenik. Udalak aurtengorako pentsatua duen aurrekontuaren zenbateko osoa 2.600 milioi pta inguruan izango da; horietatik 1.000 milioi inbertsio eta proiektuetan sartuko dira.

### ❑ Kalteak Gazteluondon

Gazteluondoko ikastolako kiroldegian txikizioak egin ditu gazte talde batek asteburuan sartuta. hormetan pintadak egin, zerrailak eta saskibaloiko kanastak apurtu, eta hainbat material lurrean sakabanatuta utzi zuten. Horrezaz gain, kiroletan erabiltzen den hainbat material desagertu egin da: pikak, baloiak, sareak, uztaiak....



# Txandaka

## HURBILA ETA EDERRA



**Jon Basterra (*)**

"Small is beautiful" (txikia ederra da) esan eta idatzi omen zuen amerikar saiolari batek eta sentsibilitate berri bat esaldi bakar batean laburbildu zuen. Txikitasuna ezezik, hurbiltasuna ere oso gauza ederra dela gaineratu geniezaioke guk geuk amerikarren beste horri, eta kasu honetan esaldi batean laburbilduko genuke, besteak beste, euskal prentsan azkenaldi honetan ematen ari den fenomenorik eraginkorren eta interesgarrienetariko bat.

Lokaltasuna eta doantasuna aipatzen dituzte adituek, behin eta berriro, prentsaren joerak nondik nora abiatuko diren datozen urteotan zehazterakoan. Hauekin batera, kolorearen erabilpena eta banaketa sistema berriak, kioskoarekiko menpekotasunari ihes egiteko alternatibak alegia, izango omen dira paperezko prentsaren etorkizun hurbila. Hurbila diot, ez bait goaz orain aipatzera segidan etorriko zaizkigun egunkari elektronikoa eta gainerako aurrerapen informatikoak.

Euskararen garapenak, eta horrekin batera euskal prentsaren sendotze prozesuak, hurbiltasunari, etxekotasunaren erronkari eutsi egin behar dio duintasunez, zokokeriatan erori gabe, sustraiak lurrean ondo finkatuta, jakina, baina begiak eta belarriak zabal zabalik, munduan zehar gertatzen denaz jabetzeko eta gure egoerari aplikatzeko.

Behar ditugun kazetal enpresek, sortzen ari direnak eta sortuko direnak, maila lokalean zein maila nazionalean, ausardia eta imaginazioa izan behar dituzte lanabes, gai izan behar dira malgutasunez eta imaginazioz jokatzeko, produktu desberdinak eskaintzeko, dibertsifikazioa bait da arrakasta lortzeko estrategiarik nagusietarikoa. Halaber, apostu ausarta egin behar dute euskal irakurle berriak erakartzeko, ohizko muga antzuak gaindituz.

Bi ildo hauetan, eta gorago aipaturiko ezaugarrietan, aitzindari eta eredu dugu denok "Arrasate Press". Eutsi goiari.

*(*) Kazetaria*

KiDE
Paperdenda eta jostailudenda
Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA-k
zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu
Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE


Udazkenerako desagertu egingo dira baratzok

# Mojategiko proiektua adjudikatua

## *Kirolgunea eraikitzeko ortuen jabeekin harremanetan*

Udalak Jorge Muntañola, Alvaro Perez eta Sofia Juaristik osatutako arkitektu taldeari eman dio Mojategiko atletismo pisten proiektua idazteko ardura. Talde horrek kirolgunea egiteko ikerketa bat aurkeztu zuen, eta horretan oinarriturik erabakia hartu beharko du Diputazioak, aurreproiektu horretan neurriaren aldetik bi aukera ezberdin eskaintzen bait ziren. Diputazioaren erabakiaren ondoren hasi beharko dute arkitektuek proiektua egiten. Instalazioek har dezaketen azalerari dagokionez, 24 eta 26 mila metro karratu aipatzen dira. Aurreko Udalbatzak ere aztertua zuen Mojategi kirolgunea egiteko ideia, eta orduko proiektuak gaurko beharrei erantzuten ez zienez, berrian berritik hasi beharra izan da.

Mojategin egin asmo diren kirol instalazioen barruan, atletismorako balio izango duten pistez gain honako beste hauek ere izango dira: rugby zelaia, aparkalekuak, harmailak eta kirolarientzako aldagelak.

Diputazioak eskualde mailan era honetako proiektuak burutzen direnerako aurrikusita duen dirulaguntza ez dago zehaztuta oraindik zenbatekoa izango den. Horretarako behin betirako proiektuak ezagutu eta aztertu egin beharko du Gipuazkoako Diputazioak, eta ondoren, esan bezala, zehaztu zenbateko dirulaguntza izendatuko dion.

Atletismoko pistak eta gainerako kirol zerbitzuak kokatuko diren lur saila Mojategi baserriaren jabegokoa da izatez, baina inguru hura gaur egun ortu eta txobolaz beteta dagoenez, erabiltzaile horiekin adostasun batera iritsi beharko du Udalak, lursailak erosi aurretik. Lurrok abuztuan hutsik geratuz gero, iraila aldera lanak hasteko moduan izango lirateke.

## Usteak uste

“Europa 93» izenaz Monterronen ikusgai dagoen erakusketa ondo baino hobeto etorriko zaigu mondragoetar guztioi guere bailarako azpiegituren etorkizuna zein izango den ikusteko.

Zulo honetan bizi garenok badakigu oraingo egoera zein den: trena kendu zutenetik, garraio astunak bete egiten ditu berez saturatuta dauden gure bide estu eta desegokiak; automobilen erabilpena izugarri igo den bitartean, garraio publikoa geroz eta eskasagoa dugu eta leku inportanteenetara joateko, denbora larregi eman behar izaten dugu errepide arriskutsu hauetan.

Europa berria moldatzen hasi den honetan, ez bagara Europako komunikabideen sarean txertatzen eta, aldi berean, bailara hau Euskal Herriko gune printzipalekin ez badugu tajuz lotzen, orain arte Deba Garaian ikusi den ekimena eta sortu den aberastasuna, Lezetxikikoak bezalako iraganeko aztarranek bihur daitezke konturatu orduko.

Geroa nolakoa nahi dugun eztabaidatu beharko dugu, proiektu desberdinen arteko alde eta kontrako faktoreak neurtuz. «Europa 93» erakusketak horietako egitasmorik nagusienak erakusten dizkigu. Geure geroaz jabetzen hasteko beraz, abiapuntu emankorra izan daiteke. Hil honen 20ra arte egongo da zabalik.

*Joxe Aranzabal*

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE





Abesbatzako 80 partaideak hasiak dira atzerrira joaten

# Goikobalurekin Galesera

## *Joan nahi dutenentzat leku izango da Aste Santuan*

Goikobalu abesbatza Gales eta Newcastle-era joango da martxoaren 28tik apirilaren 6ra. Bidaia egiteko ideia Judy Barnes, Goikobaluko partaideak Galesekin dituen harremanetatik sortu zen, Llaneryko *Cantorion y Rhyd* abesbatzako zuzendariarekin hitz eginda. Martxoan arrasatearren bisita jasota, hurrengoan hangoak etorriko dira, abestu eta Euskal Herria eta kooperatiben mugimendua ezagutzeko asmoz.

Bidaian, gainera, Newcastlen ere kantatuko dute abesbatza arrasatearreko 80 partaideek, Maria Angeles Uribarren arrasatearrak hango unibertsitateko koruarekin harremanetan ipini bait ditu, eta newcastletarrak gure herrira etor daitezen ere badira asmoak gerorako. Newcastleko katedralean Aitor Olea organojole dela eskainiko dute Purcellen Te Deuma eta Haendelen Aleluia. Organo horrek 7.000 tubo ditu eta Arrasateko parrokiakoak 1.500.

Bidaiaren aurrekontua 4.800.000 ptakoa da, eta abesbatzako partaideek ordaindu beharko dutenaz gain, 3 milioko diruiturria bilatu beharko dute. Joan nahi duten arrasatearrek aukera izango dute, horretarako lehenbailehen izena eman behar bada ere.

### ❑ Irratizaleak

AIKE-ACRA, Arrasateko Irratizaleen kultur elkarteak bere urteroko asanbladan zuzendaritzako partaide berriak hautatu zituen, bazkideen %67a bileran izan zela. Lehendakari berria Francisco Nuñez izango da, Ines Matin lehendakari orde, Jose M. Yarza idazkari eta Gotzon Altube diruzain.

### ❑ Epaiketak

Datorren asteazkenean, hilak 20, zenbait arrasatear epaituko dira Madrileko Epaitegian. Bidaburu Otadui *Txarra*, Eloi Irazabal, Pedro Guridi *Pedrotxo*, Arzamendi eta Bengoa oñatiarrarentzat 20 urteko kartzela zigorra eskatzen da. Epaiketara joateko autobusak antolatu dituzte Gestorek. Irteera Arbolapetatik egingo da, martxoaren 20an goizaldeko 3etan.

### *JAIOTZAK*

Marino Tomé, ***Iñigo***, otsailaren 28an.
Zeziaga Garcia, ***Mariam***, martxoaren 4ean.
Laskurain Ibarguren Maddi, 4ean.
Aparicio Barandiaran, ***Mikel***, 5ean.
Perez Gerrero, ***María Isabel***, 20an.
Alonso Santiago, ***Joseba***, 8an.

### *EZKONTZAK*

***Mendikute Alejandro & Mª Nieves Iribarreniturrieta***, martxoaren 9an, zibilez.
***Miguelez Daniel & Garitano Zorione***, 9an, zibilez.
***Martinez Jesus Mari & Melgar Mª Asun***, 9an, elizaz.

SEGURTASUN-INJINERUTZA






Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

ECUADOR
Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE




Batzordea berritu egin da azken Batzar Nagusiaren ondoren

# AEDren Batzar Nagusia

## *Onura publikoko elkarte izendatzeko bidean*

Joan den ostiralean AEDk egin zuen Batzar Nagusian, elkartea Onura Publikoko entitate izendatzeko egin beharreko tramitei ekitea erabaki zuten bazkideek. Estatus juridiko hori eskatzearen arrazoi bezala, herrian euskararen babeserako egiten ari den lana gizartearentzat orokorrean interesekoa izatea aipatu zen. Horrezaz gain, iazko diru kontuen berri eman eta aurtengorako aurrekontuak onartu ziren, eta aspalditik lokala txiki geratu dela eta elkartearen dinamika baldintzatu egiten zela eta, batzordeak proposatutako irtenbide onartu egin zituen batzarreak.

Bestalde, urteko ekintzen eta elkartearen lanaren balorazio orokorra egin zen, alde batetik AEDri barrura begira, eta beste aldetik 90ak euskara mailan eman duenari begirada ematea, herri mailako filosofia eta dinamikaren aldetik eta Euskal Herri mailan, EKBren topaketak eta beste zenbait puntu.

Zuzendaritza batzordean, bestalde, aldaketak izan ziren, eta izen berrien artean, Dani Larrea, Marilu Ajuria, Jon Iñaki Izarzelaia, Unai Bergaretxe, J. F. Diaz de Tuesta eta Joxe Etxeberria.

# *Ingurugiro Eskolaren inagurazioa*

Arrasateko agintarien aurrean, Juan Jose Zubimendi Hirigintza, Lan eta Ingurugiro saileko diputatuak Udala auzoko Ingurugiro Eskola inauguratu zuen joan den ostiralean. Gipuzkoako Diputazioaz gain, Eusko Jaurlaritzak, Arrasateko Udalak, Udala auzoak, ekologistek eta irakaskuntza munduak beren ordezkariak izan zituzten inaugurazioan.

Pagoeta eta Artikutzakoekin batera, Udalakoa Gipuzkoan zabaldu den era horretako hirugarren eskola da. Urtarrilaren 16an ireki zenetik, 10. eta 11. mailetako 304 neska-mutiko, denak Arrasetakoak, pasatu dira Udalako eskolatik. Aurrerantzean mankomunitateko ikasleen txanda izango da.



Onduline
URALITA
TXOMIN HERIZ
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

COMERCIAL TERRESTRE MARITIMA
TRANSPORTES
ARANBURU COTEMAR
Garraio agentzia
ATA
Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

HAURTXOA
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE




J.M. Usatorrek eta J.L.Lanak seguruenik ez dute errepikatuko

# EAJko alkategai misteriotsua

## *EE ezik, gainerako partiduak zerrendak osatu barik*

Asteazken goizetik EAJk badu zerrendaburua maiatzeko udal hauteskundeetarako. Baietza telefonoz eman zien jelkideei kooperatibista misteriotsuak eta lan-bidaian joan zen, gaur itzultzekotan, baina zenbait laguni pertsonalki bere hautagaitzaren berri eman bitartean bere izena astelehenera arte publiko ez egiteko erregutuz. Asteburu honetan alderdiko zenbait arduradun eta hautagairekin elkartuko da zerrendak erebat tajutzeko. Oraingo zinegotzietatik akaso P. Urain egon liteke hautatua irteteko moduan, botuen arabera.

HBn eta EAn ez dago ezer berririk joan den astetik. Uniko aipatzea Usatorrek ez duela seguruenik errepikatuko. PSOEri dagokionez, zerrenda nahiko itxuratuta omen daukate, baina zerrendaburuarekin nahi dute sorpresa eman. Gutxienez oraingo zinegotzi bik, tartean Paco Garcia, errepikatu egingo lukete.

Gauzak aurreratuxeagoak dauzkan bakarra EE da. Asteazkenean 21 izeneko zerrenda osatu zuten. Hona hemen horietako lehen bostak: Aitor Orobengoa (Aurki), Jabier Arkautz (Fagor), Arantxa Oruna (Eroski-E. Jaurlaritza), Iñaki Etxebarria (LKA) eta Bittor Aranzabal (Fagor).

■ EAJren zerrendak udal hauteskundeetarako makina bat esames eta beharleku eman ditu. Badakigu **Jose Antonio Goitia** tanteatu zutela, arrakasta handirik barik. Ardantzaren alkateordea izan zenak ez omen zuen eskaintza onartu, berriro ere ikasten hasia delako.

■ Txikiteo mailan denetik esan da EAJren balizko zerrendaburuaz: **Luis Sagasta «Mane»** Kutxako langileari proposatu ziotela, Lan Kide Aurrezkiko **Juan Jose Muruamendiarazi**, eta baita **Alfonso Gorroñogoitia** kooperatiben sortzaileari ere. Telefonoz galdetu genionean, berari inork ez diola horrelako ezer proposatu esan zigun. Txikiteroen gauzak, antza.

■ **Aitor Antxia** urregorria bezain altu kotizatzen omen da balore politikoen merkatuan. Asko izan dira irakasle atxabaltarra EAko zerrendaburu ikusteaz harritu direnak. Seguruenik ez dute jakingo Aretxabaletako PSOEk euren zerrendako bigarren postua eskaini ziotela. Onespen zabala deitzen zaio horri, bai jauna.

■ **Albaro Esparza**rekin batera, **Ignacio Jimeno** eta **Aitor Orobengoa** mondragoetarrak EEren Biltzar Ttipiko kide izango dira. Lehenengo biak *Berriztapen Demokratikoa* korrontekoak dira Aitor, *Auñamendikoa*. Ignacio Jimeno Euskadiko Partidu Komunistatik heldu zen EEra.

GOROSTI
Jatetxea
Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46



Argzkia: Joseba

Zaldibar lehengo moduan zegoen oraindik 85eko udazkenean. Orduko jarleku haiek bazuten zerbait erakargarri, talde handiagoak biltzeko aukera, borobilean jarrita hitz egiteko modua emateaz gain. Umeak ziburuetan bakan, maiteminduak bankuetan urri eta frontoiko harri zaharretan gero eta pilotari gutxiago ikusten dira. Lekuak xarma galdu ote du? Lehen nolakoa zen gogoratzen ez zuenarentzat, horra argibidea, eta iratxoren batek egindako aldaketa, lehenera dadila.


Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE



**Erguineko Eskolak** 10 urte betetzen dituela eta, sekulakoak egin dituzte joan den astean eta asteburuan. Ekintza ugari guraso, irakasle eta batez ere umeentzat.. Lasterketetan, honela ikusi genituen, eurak baino dorsal haundiagoekin. Hamar bete dituzuen bezala, beste hainbeste eta gehiago izan daitezela aurrera.



Badator, badator, Arrasate Pressen 100. zenbakiko jaialdi erraldoia. Trikitriarekin hasi eta rockeraino izango du, **RIP** talde desagertua barne. **Joseba Tapia** eta **Xabier Leturia**ren gain izango da lehen zatia, eta iparraldeko **Minxoriek** beste hainbat talderen kantak eskainiko dizkigute. Jaialdira datorrenak, abestiok jatorrizko kantariaren ahotsean entzuteko parada izango du. Eta baita *sospresa* ikaragarriak ere...



◀ **San Antolingo neska mutikoek** irrifartsu irten zuten Arrasate Pressetik. Galdera ugari, jakin min handia eta eritziak ere adierazi zituzten. Har daitezke, bai, horrelako ikustaldiak.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

**Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE**



Jose Mari Ormaetxeari proposatu aurretik, antza denez, Jon Azua Industri Sailburu berriak **Jesus Mari Herrasti** Fagor taldeko lehendakaria eraman nahi izan zuen SPRIra, baina honek ezetza eman. **J.M. Ormaetxea, X. Retegi** eta **P. Mendieta**ren irteerak -hirurak Eusko Jaurlaritzara doaz- berriz, nahasmena sortu bide du zenbait kooperatibistaren artean. Batzuk kooperatibek gobernuan goi mailako ordezkaritza izatea begi onez ikusten duten bitartean, zenbaitek ez dio ondo erizten birmoldaketa garai honetan halako jende kualifikatuak kooperatibak uzteari.

**Bittori** eta **Ignazio** ezkondu zirela ere bada denboralditxoa. Azaroaren 10ean, Loiolan eman zuten baietza, eta ondoren Kanariar Irletatik egin zuten bidaia. Zorionak, berandu bada ere.



Epelde

## Izen PROPIOAK

● **Juan Jose Uriarte "Bermi"**, 44, bermiotarra izendatu dute Arrasateko Igeriketa taldeko lehendakari. Bermik 23 urte daramatza Arrasaten bizi izaten, ikasketaz diseinatzaile grafikoa da. Eskola Politeknikoan eta gero Milanen egin zituen ikasketak eta Diaran ari da gaur egun.

● **G. Uribarren** (S. Frantzisko Xabier Ikastola), **M. P. Fernandez** eta **G. Eskibel** (San Viator) Eskola Kantagintzan. **X. Arruti** eta **J. Izquierdo** (San Andres) eta **B. Murgiondo** (San Viator) Bertsolaritzan. Eskola antzerkigintzan berriz, **A. Landa, I. Moreno, A. Etxeberria, A. Errasti, D. Uribe, M. Martinez** (Erguin) eta **N. Zugasti, S. Mayo, J. Izquierdo, X. Arruti, A. Cabezas** eta **M. Borque** (San Andres Eskola) izango dira Eusko Jaurlaritzak gai horiek eskolan lantzeko ematen dituen bekez Arrasate ikastetxeetan arduratuko diren irakasleak.


ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

BIONA

Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

BONBOIAK
Alai
FRUITU LEHORRAK
Otalora 2, ARRASATE

# Orkatz: umetatik heldutasunera doan bidea eginez

**_Scout mugimendua XIX. mendean hasitakoa da, Baden Powell britaniarrak sortarazitakoa. Mugimendu horren helburua gizarteak gizonari ematen ez zion heldutasuna lortzea zen. Haren jarraitzaile, beren era propioan, Arrasateko Orkatz Scout taldean._**

**_Orkatz Scout taldea gaur egun., San Biator taldea sortu zenean, baina oraingo arduradunek ez dituzte sorrerako egunak gogoratzen. Izan ere, orduan umeak besterik ez ziren. Makina bat jolas eta mendi irteera egiten zen sortu zenean, eta baita gaur egun ere, Scout-en ezaugarri nabarienak natura eta talde giroa bait dira._**

Juan Mari Belategi, Xabier Azula, eta Bittor Agirreurretak Orkatz Scout taldean dauden gehienek bezala, lehen pausuak *Koskor*ren sailean egin zituzten, zortzi urtetik hamabi urte dauzkaten neska-mutikoak biltzen diren sailean hain zuzen. *Koskorren* sailean, jolasak erabiltzen dira bereziki, helburu jakin batekin: neska-mutikoak jarrera indibidualistak poliki-poliki utziz talde girora ohitzen hasi daitezen.

Behin hamabi urte betetzen dituztenean, *Koskorrak* izateari utzi eta Orkatz Scout taldeko neska-mutikoak *Oin-arin* bihurtzen dira, hamalau urtera arte. Fase honetan, batez ere talde lanari ematen zaio garrantzia, besteekiko harremanari. Naturarekin lehen harreman sendoak ere fase honetan ematen dira, mendi irteerei garrantzi berezia ematen zaielarik.

Hamabost urte bete eta gero, Scouten gradazioan *Azkarrak* izatera pasatzen dira, eta hortik gorakoak *Trebeak* dira, era honetan arduradun bihurtuz. Bi fase hauetan, elkarren arteko proiektuak bultzatzen dira, bakoitzak dagokion ardurak hartu eta bete behar dituelarik. Horretaz gain, ingurugiroa defendatzeko konpromezura bideratzen dira Scouten ahaleginak, eta baita herriaren alde lana egitera ere. Alde horretatik, adibide gisa, Orkatz Scout taldekoaek talde euskalduna dela adierazten dute.

Lau fase eta, laburbilduz, helburu bakarra: jendea hezitzea heldutasunera iritsi dadin.

### Beste taldeekiko harremanak

Bere nortasuna eta lan egiteko era badu ere, Orkatz Scout taldea, SMK-n, Scout Mugimendu Katolikoan sartuta dago, Tolosa, Donostia, eta Irungo taldeekin batera.

Orkatz taldeko arduradunek diotenez, Scout Mu-



Juan Mari, Xabier eta Bittor, Orkatz Scout taldeko hiru arduradun.

gimendu Katolikoan egoteak, ez omen du elizarekin aparteko loturarik suposatzen. *"Garai batean, Scouten mugimenduak bezalakoak bultzatzeko aukera bakarra eleizaren baitan egitea zen. Bestela, egoera politikoagatik, oso zaila izaten zen edozer gauza egitea. Izena hortik dator, baina guk ez daukagu aparteko loturarik elizarekin. Arlo horretan sinismen askatasuna dago, bakoitzak nahi duena egin dezala".*

Alde horretatik, aipagarria da Orkatzekoek daukaten ustea, jende arruntak ez duela euron berririk, ez eta egiten duten lanaren jakiterik eta gainera badagoela mesfidantza kutsua kaleko jendearen artean. *"Jendeak ez gaitu ezagutzen, eta aza-*

**Ingurugiroa defendatzeko konpromezura bideratzen dira ahaleginak**

*letik ezagutzen gaituenak ez dira gehiegi fidatzen, zer izango ote dira?. Gure leloa* ***Beti Prest*** *da, eta edonori laguntzeko prest gaude. Gurasoekin, kanpamenduetan batez ere, harremanak*



Mendi irteerak garrantzi handia daukate Orkatz taldean.

*dauzkagu, egiten dugunaren berri izan dezaten".*

Bestalde, Gipuzkoako beste taldeekin izaten den harreman sendoena Scout egunean sortzen da, talde guztiak toki batean biltzen direlarik elkarrekin eguna igarotzera. Hori bai, herriko beste taldeekin ez dute aparteko harremanik.

### Naturaren alde

Argi dago, aurrez aipatu diren lau faseetan adierazten zenez, Orkatz Scout taldean naturaren aldeko lanak izugarrizko garrantzia duela. *Koskor*retatik hasita naturarekiko errespetua irakatsi nahi izaten da. Beharbada horregatik, duela urte batzuk Orkatz berak talde ekologista ere sortu zuen, gerora desagertuko zen taldea hain zuzen. Talde hori deseginda ere, naturarekiko lotura ez da galdu, astero-astero Orkatzekoek mendi irteeraren bat antolatzen dutelako eta urtean zehar pare bat aldiz gutxienez mendian egonaldiak antolatzen dituztelako, beti ere umeei naturarekiko begirunea erakutsiz.

Euren lanak umeengan duten eraginaz ez daukate dudarik Orkatzeko arduradunek. *"Hortik zehar zoazenean, eta ikusten badituzu mutikoren batzuk gaiztakeriatan, sarritan pentsatzen duzu zeure taldean daudenek ez luketela horrelakorik egingo. Badirudi ezetz, baina hor konturatzen zara lanak eragina baduela. Denbora gehiago eskainiko genioke, baina guk ere gure zereginak badiugunez...".*

## Lokalaren premia

Diruarena ez da Orkatz scout taldeak duen arazorik larriena. *"Udalak ematen digun laguntzarekin, bazkideek ordaintzen duten 1.500 pezetako kuotarekin, eta egiten dugun paper bilketarekin, ekintzak bideratzeko beste diru ateratzen dugu. Lokalarena bai dela arazoa, orain daukaguna oso eskasa bait da".*

Ehun neska-mutiko inguru dabiltza aurten Orkatzen, neska eta mutikoen proportzioa %50ekoa delarik. Ez dirudi Arrasaten Scout mugimenduak gorakada handirik egingo duenik datozen urteetan, *"aurten hamar bat mutiko berri besterik ez bait dira etorri"*, ezta jaitsiera handia izango denik ere, *"azken urteotan ia jende bera gabiltza eta"*.

AUTO ESKOLA ARRASATE
7etatik 8etara klase teorikoak
Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
## ZURE ZERBITZURAKO



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# Baloiak ez du jaberik

## Airean da talde askoren sailkapena, argazkian baloia ikusten den moduan.



**Bigarren faseari bukaera emateko partidu bakarra gelditzen da, baina arriskutsuegia litzateke hau edo hura sailkatuko direla esatea, gauzak oso estu daude eta. Horren ordez, datorren astean etorkizuna jokoan jarriko duten taldeei zorte ona desiratzea besterik ez dago, eta onenak irabaz dezala**

ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8,
Tfnoa: 79 46 12

ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

JMA JMA

## A taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk . | Ttak. |
| Argi Ibili | 6 | 6 | 0 | 0 | 37 | 9 | 12 |
| Artzankos | 6 | 4 | 1 | 1 | 25 | 19 | 9 |
| Camerun´s | 6 | 4 | 0 | 2 | 19 | 20 | 8 |
| Bar Artano | 6 | 3 | 2 | 1 | 26 | 18 | 8 |
| Zortzikin nahiko | 6 | 3 | 0 | 3 | 25 | 37 | 6 |
| Kriskibalda | 6 | 1 | 1 | 4 | 24 | 28 | 3 |
| Potrozorri | 6 | 1 | 0 | 5 | 13 | 32 | 2 |
| ~~Autovia palutia~~ | 6 | 0 | 0 | 6 | 0 | 6 | 0 |

## B taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk . | Ttak. |
| Fosforo´s | 6 | 4 | 1 | 1 | 18 | 15 | 9 |
| Golfos Persicos | 6 | 4 | 1 | 1 | 15 | 11 | 9 |
| Adelaida | 6 | 3 | 2 | 1 | 28 | 19 | 8 |
| Arrasate Kirolak | 6 | 3 | 2 | 1 | 14 | 13 | 8 |
| Lorategi-Potroak | 6 | 2 | 1 | 3 | 19 | 22 | 5 |
| Bizkorrak | 6 | 2 | 1 | 3 | 20 | 17 | 5 |
| Sokoa 600 | 6 | 0 | 2 | 4 | 27 | 35 | 2 |
| Alperrak-Aldatz | 6 | 0 | 2 | 4 | 19 | 28 | 2 |

## C taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk . | Ttak. |
| Sum. Ind. Ugarte | 6 | 5 | 1 | 0 | 23 | 10 | 11 |
| Zuloak | 6 | 4 | 2 | 0 | 17 | 11 | 10 |
| Bar Kajoi | 6 | 4 | 0 | 2 | 31 | 21 | 8 |
| Diego Antonio | 6 | 2 | 2 | 2 | 25 | 26 | 6 |
| New Laso Arregis | 6 | 2 | 1 | 3 | 19 | 25 | 5 |
| Los Heredia | 6 | 2 | 0 | 4 | 22 | 28 | 4 |
| Pepelus | 6 | 1 | 0 | 5 | 27 | 36 | 2 |
| Rayo Vatica-no | 6 | 1 | 0 | 5 | 17 | 24 | 2 |



**Artzankos**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Joseba Arejolaleiba, Luis Mari Ibarrondo, Aitzol Zaitegi, Carmona eta Santi Lopez. Makurtuta: Iñaki Ibarrondo, Arturo Moqueiras, Kepa Ezkurra eta Zigor Oruna.



**Bar Kajoi**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Vicente Vicario, Jesus Mari Zudaire, Francisco Donoso eta Francisco Javier Barrero. Makurtuta: Iñaki Mujika, Javi Romero, Francisco Andres eta Francisco Javier Pascual.





Nahiz eta ados ez egon, arbitroak agindutakoa bete egin behar da, nahiko egiten dute arbitratzearekin eta. Hala ere, jende asko omen da txistulariari denetarik esaten diona, arbitratzearekin nahiko lan ez balute bezala. Halakoak kanpora!

OPEL
Hobeak esperientziaz
TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

Lorategi
Kafetegia
Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ALCANADRE
TABERNA

GURE
LEKU
taberna
Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29

## EMAITZAK

**A taldea**

| | |
|---|---|
| Argi Ibili 8 | Potrozorri 2 |
| Bar Artano 5 | Artzankos 5 |
| Autovia patutia 0 | Camerun 1 |
| Kriskibalda 6 | Zortzikin nahiko 8 |

**B taldea**

| | |
|---|---|
| Bizkorrak 3 | Lorategi Potroak 5 |
| Alperrak Aldatz 7 | Sokoa 600 7 |
| Golfos Persicos 3 | Fosforos 4 |
| Adelaida 5 | Arrasate Kirolak 1 |

**C taldea**

| | |
|---|---|
| Zuloak 3 | New Laso Arregis 2 |
| Bar Kajoi 2 | Sum. IND. Ugarte 4 |
| Rayo Vatika-no 5 | Los Heredia 3 |
| Pepelus 5 | Diego Antonio 8 |

## ATEZAINAK

*Jesus Moreno Saria*

**Angel Elkorobarrutia 9 gol**



• **10 gol**: Javier Murguzur (Sum. Ind. Ugarte).

• **11 gol**: Miguel Galan (Golfos Persicos), Iban Guridi (Zuloak).

ZENBAKI SARITUA: 38.623

Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzkeo epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

45670

Trikiti

SOINUA • BIDEOA • T.B • KOMUNIKAZIOA

*Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE*

# Txutak

## Azken aukera

Gori-gorian daude gauzak Zaldibarko futbito txapelketan. Bigarren fase honi bukaera emateko ihardunaldi bakarra gelditzen da, eta sailkatu behar diren zortzi taldeetatik oraingoz bik bakarrik ziurtatu dute sailkapena: *Argi Ibili* eta *Sumnistros Industriales Ugarte* taldeek.

A taldean, *Argi Ibilik* berea eskuratu ondoren, *Cameruns*, *Bar Artano*, eta *Artzankosen* artean jokatuko da sailkapena osatzeko gelditzen den postua. Gauzak goriago jartzen dira pentsatzen bada datorren ihardunaldian lau talde horiek euren artean jokatuko dutela.

B taldean gauzak oso antzera daude. Sailkapena ematen duten bi lehen postuetan oraindik ez dago ezer ziurtatuta, eta horiek eskuratzeko lau talde: *Fosforos*, *Golfos Persicos*, *Adelaida* eta *Arrasate Kirolak*. Aurreko kasuan gertatzen zen bezala, talde honetan ere datorren ihardunaldian euren arteko partiduak izango dituzte.

C taldea, eta hemen ere *Suministros Industriales Ugarte* taldeak sailkatzea lortu duen bezala, beste bi taldek, *Zuloak* eta *Bar Kajoik* hain zuzen, gauza bera egin nahi izango dute. Ez dago esan beharrik, bi talde hauek datorren astean euren arteko neurketak izango dituztela.

## Datorren Asteburuan

**A taldea**

| | |
|---|---|
| Argi Ibili | Bar Artano |
| Potrozorri | Artzankos |
| Autovia patutia | Kriskibalda |
| Camerun's | Zortzikin nahiko |

**B taldea**

| | |
|---|---|
| Bizkorrak | Alperrak Aldatz |
| Lorategi potroak | Sokoa 600 |
| Golfos Persicos | Adelaida |
| Fosforos | Arrasate Kirolak |

**C taldea**

| | |
|---|---|
| Zuloak | Bar Kajoi |
| New Laso Arregi | Sum. INd. Ugarte |
| Rayo Vatika-no | Pepelus |
| Los Heredia | Diego Antonio |

## Golegileak

### Mikel Otxoa Saria



Elizaran

**18 gol.** Jose Martin Elizaran (Argi Ibili).

**14 gol.** Eleuterio Cid (Argi Ibili).

**11 gol.** Jose Vitoria (Pepelus).

**10 gol.** Jon Errasti (Zortzikin nahiko).

LUIS CORRA SALVARREY, S. L.
Instalazioak eta produktuak:
• Galbanizazioa
• Bibraziozko leunketa
• Pinturak
• Urak
Galdakaoko Errepidea 2, 3. Tfnoa: 94 - 416 04 70 BILBO

URONDO ELEKTRIZITATEA
Nafarroako Etorbidea 11,
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



LAND-ROVER
ROVER
SAN ANDRES AUTOAK
Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98
ARRASATE

## Sor Mª Luisa Velez de Mendizabal

# Misiolari arrasatearra Perutik bueltan

**Sor Maria Luisak, jaiotzez bizkaitar izan arren txikitatik arrasatear denak, 30 urte daramatza Perun, eta 50 baino gehiago mertzedaria. Urte askotako lanaren ondoren, atseden hartzera itzuli da urtebeterako, hainbeste maite duen lur hartara berriz bueltatzekotan. Gaztetan bezain adoretsu eta lanerako gogoz dirudi 72 urterekin.**

**— Noiz eta nola abiatu zinen Perura?**

— 1961eko urtarrilaren 1ean abiatu ginen mertzedarietako zazpi monja, eta hogeitahiru egun egin genituen bidean. Moyobambako gotzaia, Elortza elgetarra genuen Liman zain, oihan aldeko probintzia hartara eramateko. Limatik hiru ordu ziren hegazkinez, eta hilabete eman behar izan genuen hiriburuan, Moyobambako eskola bukatu arte.

**— Eta Moyobambara iritsi zinetenean?**

— Martxoaren 3an bete dira hogeitamar urte hara iritsi ginela eta eskolaren kargua hartu genuela. Lana oso gogorra zen, ez bait zegoen ez urik, ez argirik, ez ezer gu iritsi ginean. Janariak eta klima ere oso ziren ezberdinak, beroa eta hezetasuna. Eltxo antzeko "zancudoek", oso estu hartzen gintuzten, baina alaitasunez, edozeri egiten zaio aurre.

**— Zertan ari zinen Perura joan aurretik?**

— Oiartzunen egin nituen hamasei urte. Niri beti gustatu izan zaizkit ume txikiak, eta beti maistra ibili naiz, orain erretiroa hartuta egon arren. Umeen lehen urteetako heziketa erabat garrantzitsua da, izan ere, segun eta nola irakasten zaien lehen zikloan, hala ikasiko



dute hurrengo urteetan, erraztasuna hor hartzen bait da, oinarrizkoa. Umeek oso bihurriak dira, eta normala da gainera, umeak bihurria izan behar bait du, bestela gaixo dagoen seinale.

**— Orain kolera izurritea bizi dute Perun. Zu etorri zinenean nola zegoen egoera?**

— Nik urtarrilaren 11n irten nuen Perutik, oraindik kolera agertu aurretik. Handik Bogotara joan nintzen hilabete pasatzera, eta otsailaren 11n handik irten nuenean oraindik ez zegoen ezer, bestela txertoa har araziko zidaten eta. Kolera 20 inguran agertu zen. Egunkarietatik eta, jakin dudanez, desastre hutsa da hangoa, pobrezia handia dago eta horrezaz gain, badira Liman bertan ere zenbait zonalde ur barik, garbitasun barik. Ur zikinak hondartzetara botatzen dira, eta debekatuta dago bainatzea, baina udak hain beroak izanik, jendeak ez du jaramonik egiten, eta horixe izan da nire ustez, beste ezer baino lehen, izurritearen arrazoia. Ez dut entzun oraindik oihanera iritsi denik; mendi aldera bai, ordea, eta hango pobrezia eta bizimodu baldintzak benetan latzak dira. Zenbat gustatuko litzaidakeen orain han egotea, laguntzeko ahal izateko!

> **“Egoera tamalgarria bizi du Peruko herriak orain, kolera izurritea dela eta**

**— Nola aurkitu duzu Arrasate, asko aldatu da?**

— Beno, orain sei urte egon nintzen, eta ordutik hona ez da asko aldatu. Baina lehenengo aldiz etorri nintzenean ezezaguna zegoen, 1971. urtean. Jainkoari esker, askoz ere hobeto dago orain eta ikaragarri gustatzen zait. Jendea ere lehen bezain atsegina da, baina asko eta asko ez ditut ezagutzen, eta eurek: *Kaixo, Sabina, zer moduz?* esaten didate kalean. Sabina nire benetako izena da, monja egin aurrekoa.

**— Hemengo berri asko jasotzen duzue? Nola ikusten da norberaren herria handik?**

— Ez da albiste askorik iristen, egia esan. Han bestela euskaldun jatorriko jende asko dago. Hango albisteak hona heldu ahala, laguntza bidali behar luketela esaten dut beti nik. Gainerakoan, gure kongregazioari dagokionez, badakit hemen orain oso bokazio gutxi dagoela, ez da lehen bezala, baina gehituko da, nik badut esperantza. Uste dut mertzedarietan 140 inguru garela arrasatearrok.

**— Berriz hara bueltatu bitartean, zer egiteko asmoa?**

— Oraindik egun batzutan Arrasaten egongo naiz, ahizparen etxean, baina gero Sevillako Constantinara noa, urte sabatikoa egitera. Otoitz egin, irakurri, aberastasuna bilduaz joan, gero berriz Liman eskolako neskatila taldeari eman ahal izateko.

# Euskadiko Xake Txapelketa Arrasaten

## *San Andres Xake Taldeak antolatzen du milioi t'erdiko aurrekontuaz*

Datorren apirilaren 1etik 7ra bitartean, San Andres Xake taldeko antolatzaileei esker, Euskadiko V. Xake Txapelketa Nagusia burutuko da Arrasaten. Neurketa guztiak Abaroa Egoitzan jokatuko dira, eta guztira 120 izango dira.

Euskadiko Bostgarren Txapelketa honen antolatzaileek ziotenez, aurtengoa orain arte egin direnen gogorrena izango omen da, hogeitamar xake jokalarik hartuko bait dute parte. Hogeitamar jokalari horietatik bostek, Nazioarteko Maisu maila daukate, Mario Gomez, Francisco Gallego, Felix Izeta, Rafael Alvarez eta Francisco Javier Ochoak. Azken hau, Kataluniako talde batekin jokatzen ari da, eta Felix Izetarekin batera azkenean txapela jazteko faborito nagusia da. Maisu maila ez daukatenen artean, Carlos Lopez irundarra da aipagarriena, sorpresa eman bait dezake askoren ustez. Jokalariei buruzko xehetasunekin bukatzeko, Jose Javier Vallino arrasatearraren parte hartzea azpimarratu behar da, txapelketa antolatzearren San Andres Xake taldeak ordezkari bat aurkezteko duen eskubideaz baliatuz.



Eugenio de Andres eta Jose Pablo Urubi

Aurrez esan bezala, 120 neurketa jokatuko dira, suitzar erara, jokaldi bakoitzeko 2 ordu eta 40 minutu daudelarik. Txapelketako epaile nagusia Lukas Iruretagoiena da, ordezkaria Edurne Zabaleta, eta laguntzailea Juan Cruz Davila arrasatearra. Hauen egin beharra neurketa bakoitzeko denbora kontrolatzea izango da.

Euskadiko V. Txapelketa honek milioi t'erdiko aurrekontua dauka, eta nolabait estaltzeko, publizitateaz baliatu eta kamisetak saltzeko asmoa daukate San Andreseko antolatzaileek.

Sarrera dohainekoa izango denez, eta Euskadiko V. Xake Txapelketa Nagusi honek izugarrizko maila duenez, antolatzaileek jendea partiduak ikustera joatea espero dute. Gainera, begirateaz aparte jokatu nahi duenak ere aukera izango du, San Andres Xake Taldeko ordezkariak jokaldi simultaneotan parte hartzeko prest izango dira eta.



## *Arrasate Eskubaloi taldea gorantza*

Ez jaisteko fasea jokatzen ari dira Arrasateko eskubaloi taldeko jokalariak, eta egia esan, denboraldian zehar erakutsi duten mailarik hoberena oraintxe ari dira erakusten. Joan den astean, Ereintza taldearen aurkako neurketa jokatu zuten eta maixutasun handiz aurrera atera ere, 28 eta 22ko emaitzaz nagusitu bait ziren arrasatearrak. Orain, eskubaloikoak sailkapeneko erdikaldean daude eta gora egiteko garaia iritsi zaiela dirudi, datorren astean beste bi puntu eskuratzeko aukera ezin hobea izango dute eta. Arerioa oraingoan sailkapenean azken postuan dagoen Salesianos izango da, argazkian agertzen dena alegia.

ALE S.A.
Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76
Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

MIKEL
Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa
Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

# PODIUMA

## AITOR ARNAIZ

### Abiadura lasterketen puntan



Aitor Arnaizen proiekzioa atletismo munduan ustegabekoa izan da. Urtebete besterik ez darama atletismoan sartuta, eta dagoeneko Euskadiko Txapelketako 60 metrotako frogan bigarrena izateaz gain, Arrasateko rekorda ere badauka. *"Orain nire helburua 100 metrotako Arrasateko rekorda gainditzea da, bi ehuneneko bakarrik falta zaizkit eta"*. Urte betean, abiadazko frogez gain, luzerako jauzi hirukoitzean ere ahaleginak egin ditu Aitor Arnaizek, baina ezer aipagarririk egin gabe. *"Oso txarra nintzen, abiadan joaten nintzen, ahalik eta jauzi luzeena egin eta putzura ere ez nintzen iristen, horregatik aldatu nuen froga. Uste dut ondo egin nuela abiadako frogetara pasatzean. Irteeretan ez naiz azkarrenetarikoa baina gero abiada handian joaten naiz. Irteeran oso azkarra izan barik ere, badago tranpatxoa: lehen seriean fijatu eta epaileak ahotsa ematen duenetik tiroa jaurtitzen duen arte zenbat denbora pasatzen duen kontatzea. Gero, norberari tokatzen zaionean, buruz kontatu eta suertea izanez gero..."*.

Atletismoan dabilen bitartean, ikasten ere badabil Aitor Arnaiz, eta gauzak nahiko ondo daramatzala dio, nahiz eta berak nahiko lukeen bezain ondo ez eraman. Aitor Arnaizek astean bost aldiz entrenatzen du, eta Arrasaten dauden instalakuntzei buruz zer esanik badauka. *"Gaur egun Arrasaten dauzkagun instalakuntzen egoera lotsagarria da. Iturripen egiten ari direnari, behintzat atletismo pistari, ezin izango zaio errendimendu handirik atera, oso txikia delako. Bakarrik entrenamenduetan erabili ahal izango da. Espero dezagun Musakolako proiektua bukatzen dutenean Arrasatek behar dituen instalakuntzak izatea"*.

Ilusio handiz omen dabil Aitor eta baita berarekin entrenatzen dutenak ere. *"Niri eskolako gimnasia irakasleak atletismoan froga egiteko proposatu zidan, eta oso ondo egin zuen, ez bait naiz damutzen. Abiada frogak ez dira gogorregiak, gainera gazte asko gabiltza atletismo taldean eta giroa ezin hobea da"*.

**◆ Denboraldi hasiera**

Txirrindulari denboraldia hasi da eta Dorleta Txirrindulari Eskolako mutilek, Azpeitian burututako lehen lasterketan parte hartu zuten, kadete mailako lasterketan hain zuzen. 116 txirrindularik hartu zuten parte, horietatik 79k helmugara iristea lortu zutelarik. Arrasatearren artean Igor Urain izan zen lehena, seigarren postuan, eta Haritz Altube bigarrena, hogeigarrenean.

Bestalde, esan behar da datorren astean txirrindulari kadeteek Eibarren korrituko dutela, eta lasterketa Arrasatetik ere igaroko dela.

**◆ San Andres irabazle**

Poza ematen du noiz behinka izenburua aldatzea, eta San Andresekoen kasuan gehiago, sailkapeneko azken tokitik ateratzeko borrokan sartuta daude eta. Zaramaga taldearen aurkako partidua erraz irabazi zuten arrasatearrek, 1 eta 2ko emaitzaz eta hain diferentzia gutxik beste zerbait pentsarazi badezake ere, bi golak lehen zatian lortuz. Garaipen hori, San Andresek segidan lortzen duen bigarrena da eta badirudi, asko kostatuko bazaio ere, mailari eusteko borrokan irabaz dezakela. Datorren astean Alaves taldea izango dute bisitari, Arabako preferenteko oneneta-rikoa.

**◆ Errealaren torneoa**

Urtero bezala Errealak gazte mailako nazioarteko lehiaketa antolatu du. Jakina denez, azken partidua ezik, gainerako guztiak Gipuzkoako futbol zelaietan jokatzen dira. Aurtengoan Atxabalpeko futbol zelaian, Lausanne eta Gipuzkoako selekzioaren arteko neurketa ikusteko aukera izango da, hilaren 29an. Ea partidu on batez gozatzeko aukera dagoen, eskertzekoa litzateke eta.

ZANGITU C. B.
PINTURAK ETA PAPERA PINTATUAK
Helbide berria: OLARTE 29,
Alfonbra-likidazioa Otalora 1ean

## Arrasate Pressen 100. alea dela eta

# Moldeak apurtzen dituen kontzertua




Martxoaren 22an, eta Arrasate Pressen 100. alea ospatzeko antolatu den kontzertua oso inportantea izan daiteke euskal musikarentzat. Dagoeneko oso inportantea izan dela esango nuke, oraindik egin ez den arren. Kontzertuaren planteamenduak berak apurtzen bait ditu orain arteko emanaldietan ohizko izan diren moldeak.

Garrantzitsuak dira, berez, Tapia eta Leturiak Arrasaten egingo duten lehen agerraldia eta RIP taldearen berrelkartzea. Lehenak trikitiaren iraultzan aitzindariak direlako eta bigarrenak euskal rockaren sorreran puntako talde izan zirelako. Hala ere, kontzertuaren berrikuntzarik aipagarriena bigarren zatian dago, hau da Minxoriak taldea oinarri dela euskal rock taldeetako kantariekin prestatu den saioan.

Minxoriak taldearen lana herrietako jaietan gauzatu da batez ere, kaleko berbenetan. Eta jendeari dantza eragiteko egiten den musika hori ez da musikazaleen artean oso estimatua izan, nahiz eta sarritan talde horietako musikoak bestelakoak baino hobeak izaten diren. 22ko kontzertuan Minxoriak-ek izango duen protagonismoak berbenetako taldeen lana aldarrikatzen du, beraien lanarekiko estimazioa eskatzen.

Era berean, puntako rock taldeetako kantarien partaidetza ere guztiz berria da euskal musikan. Gure artean musiko ezberdinen arteko elkarlana apenas ezagutu den, azken aldian urratsen bat eman bada ere. Eta badakigu, hortik zehar ikusitako esperientzien bidez, zenbateraino izan daitekeen aberasgarria bide hori, zer-nolako emaitza onak lor daitezkeen. Ea datorren asteko emanaldiak eragin iraunkorra izaten duen norabide horretan.

Kontzertua kristorena izango da, ziur. Ez gero hutsegin!

*Mikel Irizar*

HIRU S. A.
MEKANIZAZIOAK

- Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- Fresatzeko makinak
- Zenbakizko kontrola
- Mekanizazio-zentroak
- Tornuak
- Artezko makinak, etab.

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

## Batuta

# Gurutze Uribarren



Armonioa izan zen 12tik 18 urtera bitartean, Gurutze Uribarrenek elizkizun guztietan jotzen zuen musika-tresna, musikarako zaletasuna txikitandik badatorkio ere. *"Aitarengandik hartu nuen musikarako zaletasuna. Sei anaiarreba ginen eta askotan kantuan ibiltzen ginen, musikarako bereziki neu bakarrik atera banaiz ere. Hamar urte nituela solfeoa eta pianoa ikasteari ekin nion eta hamazortzi urterekin piano ikasketak bukatu nituen. Carmen Zendokizek irakatsi zidan, Arrasaten atera diren pianojole gehienei bezala"*. Bere garaian ikasi zuen bezala, musika irakasten ordu asko eman ditu Gurutzek, 1968an Ikastolan klaseak ematen hasi zenetik. *"Niretzat musikak irakaskuntzan garrantzi handia izan du, beti erabili izan dut, gela girotzeko, euskara lantzeko, hiztegia irakasteko...oso errekurtso aberatsa izan da. Bestalde, ikastetxeetan musika behar bezala ez dela erakutsi uste dut, beti izan da ikasgaien arteko Maria. Orain, Arrasaten behintzat, Arrasate Musikal eta ikastetxeen arteko lotura sendotu nahi da eta musika ikasketak beste nolabait bideratu. Ondo egiten bada, gauza polita izan daiteke"*.

Pianoa eta irakaskuntzaz gain, Gurutze Uribarrenen pasio ezaguna organoa da, orain bi urte egindako aurkikuntza hain zuzen. *"Berez, jotzeko oso tresna zaila da. Gasteizen hasi nintzen ikasten, eta hasieran uste nuen inoiz ez nuela menderatuko, eskuen eta hanken arteko koordinazioak kontzentrazio handia eskatzen bait du. Behin ikasiz gero, zoragarria da, batez ere parrokiara entseiatzera joaten naizenean. Parrokoari giltza eskatu eta bertan entzerraturik egoten naiz, une horietan guztia ahazten zait. Ahoz azaldu ezin den esperientzia da, egunez argia kristaleretatik sartzen denekoa esaterako"*.

**Musika nire bizitzan beti oso errekurtso aberatsa izan da**

## Txio txioak

### Goikobalu Hondarribira

Datorren hilaren 23an Goikobalu abesbatzak kontzertua eskainiko du Hondarribian, joan den urtean Hondarribiko abesbatzak hemen eskaini zuen bezala. Goikobaluk Hondarribian egingo duen kontzertuak bi zati izango ditu: lehenean "a capella" deritzon eran kantatuz, eta bigarrenean J. Guridi Orkestrak lagundurik. Besteak beste, H. Purcell-en Te Deum-a abestuko du .

Goikobalukoek Barriako albergean asteburu osoko egonaldia egin zuten, egonaldi horren helburua Hondarribiko kontzertua, Ejea de Los Caballeros-eko lehiaketa, eta Galeserako bidaia prestatzea zelarik.

### Grabaketa interesgarria

"Mesias" J. F. Haendelen lanaren grabaketa berria egiten ibili dira hainbat musikari ospetsu, eta laster salgai jarriko da Estatu Osoan. Musikari ospetsu horien artean, Luis Ignacio Ruiz de Alegria, Goikobaluko zuzendaria dago, grabaketaren kalitatea ziurtatuz. Oraindik Haendelen obra ospetsuenaren grabaketarik ez duenak, laster izango du erosteko aukera.

### Eskoletako abesbatzak

Deba Garaiko Eskola arteko abesbatzen IV. topaketa maiatzaren 4ean izango da, Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolak, Udalak eta Lan Kide Aurrezkiak antolatuta. Talde bakoitzak 20 partaide izango ditu. Izena emateko epea martxoaren 26an amaituko da, eta Gazteluondoko ikastolara deituz egin daiteke. Dagoeneko talde batzuk hasiak dira entseioetan.


ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA
*Liburuak eta diskoak*
Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

# Alfabetizaioa dela eta (VIII)

## Arrasateko Emakumeen Asanbladea

Joan den astekoaren jarraipena:

*Ekintza iraunkorrak*

• Asteartero biltzen gara arratsaldeko 7etan; Asanbladan parte hartu nahi duten emakume guztiei dago irekia. Bertan, emakumeoi dagozkigun gaiak aztertzen ditugu, halaber bultzatu nahi ditugun kanpainak prestatu, eta abar.

Euskadiko gainerako Emakumeen asanbladekin gaude harremanetan. Batzuetan zenbait ekintza elkarrekin antolatzen ditugu. Halere, herri bakoitzeko Asanbladak bere autonomia gordetzen du.

• "Permanentziak" deiturikoak. Gure elkartea irekita dago asteazteko sei t'erdietatik aurrera eta bertan atenditzen ditugu edozein eraso-mota jasan duten emakumeak (bortxaketa, senarraren aldetiko tratu txarrak, beste eraso batzuk: lantokian, kalean...); honetaz gain, informazioa eskaintzen diegu arazoren batekin datozen emakumeei: kalean gelditu direlako, bakarrik daudelako, abortatu nahi dutelako...

Halere, esan beharra dago gure laguntza oso mugatua dela, bitartekorik ez dugulako laguntza ekonomikoa behar dutenei eskaintzeko.

*Ekintza puntualak*

• 1990.ean antolatu ditugun hitzaldi irekiak:

— Jolasa eta jostailuak.

— Emakumeen dependentzia/independentzia afektiboa.

— Prostituzioa.

— Nazioarteko hitzaldia: Emakume saharauien egoera.

— Lesbianismoa/Homoxesualitatea (Institutuan).

*Beste aktibitate batzuk*

— Jostailu sexistak (ikastetxeetan banatu zen orri informatiboa).

— Martxoaren 8a (hitzaldia, manifestazio-jaia, prentsaurrekoa, propaganda).

— Maiatzak 1 (langileen eguna).

— Ekainak 28: Gay eta Lesbianen harrotasunaren eguna (hitzaldia, manifestazioa, propaganda).

Bukatzeko, esan beharra dago, batzuetan beste erakunde batzuekin elkartzen garela (Amnistiaren aldeko Gestorak...). Une honetan Arrasaten sortu den "Pertsiar Golkoko gerraren aurkako Euskal batzordean" ere hartzen dugu parte.

*Arrasateko Emakumeen Asanblada.*

*Klarion Taldea*

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA



Deba Garaiko
Eskola Arteko
Abesbatzen IV.
Topaketak

prestatzen ari gara

25 URTE KALITATEZKO IRAKASKUNTZA EUSKARAZ

baita MUSIKAN ere

# Karmele Martinez



*Biona tabernakoa*

Gezurra badirudi ere, Karmeleren 2cv-ak hiru buelta egin ditu Marrokotik zehar, problema gehiegirik gabe eta jendez beteta. Karmelek autoestopista gehienak gelditzen omen ditu. Musika entzuteko kasseta ere bazeukan, baina ezin zenez entzun, kendu egin zuen. Bere autoa Mondragoe erdik erabilitakoa da, edonori lagatzeko problemarik ez dauka eta. Berria erostekotan berdina erostea nahiko balu, kostatuko litzaioke, horrelakorik jadanik ez bait da egiten.




Salterain

**Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...**

KÖMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

# Besaideren egitasmoak 1991rako

Egunon Jauna, Utziko diguzu pasatzen?

-... Nora joan nahi duzue?

- Bada, zu zeu ezagutu nahi zaitugu eta zure mendebaldeko bizkar txuritik gora abiatu nahi dugu.

- Ondo da, baduzue neure baimena, baina argi ibiltzeko esan behar dizuet; mendizale ausartok.

- Konforme, zu zeuk esango duzu...

- Nik neuk beti eskaintzen diet neure hospitalitatea hala eskatzen didaten guztiei. Dena den, badakizue, zuei hainbeste gustatzen zaizkizuen neure forma eta gorabehera bitxi guzti hauek elikadura berezi baten beharrean daudela: hotza, haizea, bisutza, elurra eta laino itxiak besteak beste, eta bizitzerik nahi badut, beraien beharra dut. Horrengatik, zuendako ezusteko konportamenduak izan daitezkeen ordu batetik besterako denbora aldaketak eta elur jauziak, neuretako berriz, superbibentziaren arrazoiak baino ez dira. Mesede bat baino ez dira. Mesede bat baino ez dizuet eskatzen: etxerako bueltan, ni utzi behar nauzuenean, aurkitu nauzuen bezalaxe uztea.

Naizenetan egotea dut gustokoena eta.

*Mari Abrego*
*(Sagarmatha 90)*

**Aurtengorako Besaideren Irteerak**

Martxoak 16,17,18 eta 19: **Gredos mendi katera.**
Apirilak 14: **Izarra-Arantxagas-Marinda-Andagoia.**
Maiatzak 11 eta 12: **Herri Urratsera. Iñarbil-Autza-Baigorri.**
Maiatzak 26: **Urteagain-Aitzkorri-Zegama.**
Maiatzak 20tik 26ra: **Mendi astea.**
Ekainak 9: **Amezketa-Balerdi-Uztegi.**
Uztailak 14: **Leintz bailarako 4garren itzulia.**
Irailak 22: **Deba-Zumaia**
Irailak 29: **Oroimen eguna. Besaiden.**
Urriak 20: **Belate-Saioa-Alba-Elizondo.**
Azaroak 1,2 eta 3: **Iratira.**
Azaroak 24: **Bardeak.**
Abenduak 15: **Zaldupe-Ereatza-Apuko-Kastrejana.**

**Adi gazteok**

Zuentzat ere aurten izango dugu egitarau berezia. igandeetako irteerak eta abar. Jadanik bagabiltza prestatzen. Laster izango duzue honen berri.

Dena den, irteera hauetara joan ahal izateko material beharrik bazenute: Besaiden ere badituzte sokak, mosketoiak, arnesak, pioletak eta kranpoiak alokatzeko. Beharrean bazaude, pasa zaitez. Derrigorrekoa da bazkide izatea.

*Hankamotz*

la merced
IKASTETXEA

HEZIKETA IKASTETXEA
• Kontzertua
• Mixtoa
• Aurreskola (3 urtetatik)
• O.H.O.

IRAKASKUNTZA EREDUAK
• "B" Elebiduna
• "D" Euskera

ZERBITZUAK
• Orientabidea psikopedagogikoa
• Heziketa bereziko ikasgela
• Psikomotrizitatea
